

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y EMPLEO

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Nafarroak 2020ra arte 126 milioi inbertituko ditu, erdia Europatik etorrira, ekonomia eta enplegua suspertzeko

Eskualdeko Ekonomia eta Politikako Foroa antolatu da gaur eta bihar Iruñean, eta Estatuko nahiz autonomia erkidego guztietako ordezkariak izango dira bertan

Jueves, 05 de marzo de 2015

Nafarroak 126,1 milioi euro izango ditu guztira ekonomia suspertzeko eta enplegua hobetzeko. Kopuru horren erdia Europako funtsetatik dator, Europar Batasunak iragan abenduan behin betikoz onetsitako 2014-2020 programa eragilearen barnean.

Hala azaldu du lehen lehendakariorde eta Ekonomia, Ogasun, Industria eta

Enpleguko kontseilari Lourdes Goicoecheak Eskualdeko Ekonomia eta Politikako Foroaren irekieran. Iruñean, gaur eta bihar egingo den Estatu-mailako hitzordua da, eta bertan izango dira: José María Piñeiro, Ogasun eta Administrazio Publikoetako Ministerioko Europako erkidegoko funtsen zuzendari nagusia, eta baita autonomia erkidego guztietako Europako funtsak kudeatzeko beste 60 bat arduradun ere.

2014-2020 programa eragileak Europako Batzordearen oniritzia jadanik jaso zuen (abenduan) lehen komunitatea da Nafarroa, Errioxarekin batera. Hura prestatzeko orduan, proposamena partaidetza publikoko prozesu baten mende geratu zen.

Programaren barnean, hazkunde adimentsu, iraunkor eta integratzailea errazteko bideratutako ekintzak sartzen dira, 2020 Europako estrategiarekin bat etorriz. Bi jarduera-ildo nagusi sartzen dira. Alde batetik, 86,7 milioi euroko inbertsioak, haien erdia Eskualde Garapeneko Europako Funtsak (EGEF) kofinantzatuta. Inbertsio horien xedea Nafarroako enpresa-sarearen hazkundera eta lehiakortasuna hobetzea da. Bestalde, 39,4 milioi euroko beste inbertsio bat dago, haren erdia ere Europako Gizarte Funtsarekin kofinantzatutakoa. Diru horrekin, lan-munduratzeko eta ahulenen gizarteratzea indartzeko neurriak finantzatu dira.

Garapenerako funtsen banaketa (EGEF)



Eskualdeko Ekonomia eta Politikako Foroa antolatu da Iruñean, martxoaren 5ean eta 6an.

EGEF funtsen barneko inbertsioa lau jarduera-ardatzetan egingo da:

1.- Ikerketa, garapen teknologikoa eta berrikuntza sustatzea (43,9 milioi euro), Osasunbidean ikerketa indartzeko bideratutako jarduerekin; horrekin batera, diru-laguntzak ikertzaileak kontratatzeke, I+Geko kanpo-finantzaketa eskuratzeko, edo ETEetarako diru-laguntzak teknologia-zentroek emandako zerbitzuak kontratatzeke eta I+Geko proiektuak enpresetan bertan garatzeko.

2.- ETEen lehiakortasuna hobetzea. 28,7 milioi euro erabiliko da honako honetarako: enpresa-produktibitatea areagotzeko inbertsio nahiz proiektuei laguntzeko, enpresak batzeko nazioartekotu daitezkeen, edo aholkularitza espezializatuko zerbitzuak kontratatzea kanpoan ezartzeko, besteak beste.

3.- Ingurumena babestea. Kontzeptu horretarako, 4,1 milioi euro erabiliko da, karbono gutxiko ekonomia baterako urratsa errazteko (atmosfera isuritzea). Beste jarduera batzuen artean, etxebizitzetako ingurutzailen termikoa birgaitzea diruz lagunduko da.

4.- IKTen erabilera eta kalitatea hobetzea, bai eta haiek eskuratzeko aukera ere (1,7 milioi euro). Osasun-atari baten garapena finantzatu da teknologia berriek eskaintutako aukera berriak ahalik eta gehien baliatzeko; hala, herritarrei eta gaixo kronikoei beren osasuna zaintzeko gaitasun handiagoak emango zaizkie.

Nafarroako Gobernuak aurreikusten duenez, 2023. urtean, jarduera horiek guztiek jadanik badiren 700 bat enpresa txiki eta ertain mesede egingo die; berritzaileak diren ETE gehiago sortzea eragingo dute eta esportaziorako beste 400 enpresa berri izatea. Gainera, Nafarroako 342 enpresa ikerketa-zentroekin lankidetzan ari direla kalkulatu da, eta 444 ikertzailearen lana finantzatu dela.

Europako Funtzen banaketa (EGIF)

2014-2020 programa eragilearen barnean, jarduera-ildo sozialagoa bat ere sartzen da. Europako Gizarte Funtsetan esparrian sartutakoak dira, 39,4 milioi eruko aurrekontua izango dute eta Europako Batzordeak eta Foru Gobernuak erdi eta erdi kofinantzatu dituzte. Kasu honetan, ekintzak bi helbururen baitan daude:

1. Enpleguaren iraunkortasuna eta kalitatea sustatzea eta lan-mugikortasuna erraztea.
2. Gizarteratzea sustatzea, pobreziaren eta bazterketa-era ororen aurka borroka egitea.

Aurreikusitako jardueren artean, aipatu behar dira: toki-erakundeei eta irabazi-asmorik gabeko erakundeei emandako diru-laguntzak langabeak kontratatzeke; Enpleguko Zentro Bereziatan lanean diharduten desgaituen soldatak eta gizarte segurantzaren ordaintzea; gizarteratzeke eta laneratzeke, toki-erakundeetako eta irabazi-asmorik gabeko erakundeetako zentroek gizarte-bazterketako egoeran dauden edo arriskuan izan daitezkeen pertsonak kontratatzea.

2007-13 programaren % 100eko egikaritzea

Krisi ekonomikoa izan arren, Nafarroako 2007-13 programa eragilearen egikaritze-maila handia du.

EGEF funtsetan, une honetako egikaritze-maila esleitutako aurrekontuaren % 90 da. Europako erkidegoko araudiaren arabera, abenduaren 31 arte programa eragilearen neurriak egikaritzen jarraitu daitezkeela kontuan hartuz, Foru Gobernuak urtearen amaieran programaren % 100 egikaritzeke dela aurreikusten du.

Bestalde, Europako Gizarte Funtsetan, 2014ko abenduan % 77,85 egikaritu zen, eta aurten % 100 lortzea edo kopuru hori gainditzea aurreikusten da.